



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 23a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00012. Iruñeko "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua bere horretan mantentzeko foru-lege proposamena. Izapidetzeko ez onartzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jarduketa-plana taxutu eta aldian behin berrikus dezan. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (4. or.).

—11-25/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita produktu optikoak eta aho-hortzen osasuneko zerbitzuak sar ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan. Mozioa erretiratzea (4. or.).

—11-25/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena. Hezkuntza Batzordeak ezetsi du (5. or.).

—11-25/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegian, Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat garatzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (5. or.).

—11-25/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitzeko eta sortzeko plan bat abiaraz dezan. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak ezetsi du (6. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/POR-00184. Galdera, Elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea bermeekin aplikatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/PES-00190. Galdera, Kultura arteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua izenekoaren zerbitzu-kontratuari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00191. Galdera, Esako urtegia handitzearen ondoriozko luizi-arriskuei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00192. Galdera, Luzaideko mikrosareari eta itzalaldiari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00193. Galdera, ehiza- eta arrantza-lizentzien bilakaerari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00194. Galdera, jakiteko zer bilakaera izan duten Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Planean aurkeztutako honako ekintza hauek: "Kudeaketa-tresnak hobetzea", "Datuak ustiatzeko tresnak hobetzea" eta "Datuak aztertzeke teknika berriak". Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00195. Galdera, jakiteko zer bilakaera izan duten Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Planean aurkeztutako honako ekintza hauek: "CPS telekontsulta", "Pazienteen telemonitorizazioa/telezaintza" eta "Osasun Karpeta Pertsonala". Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00196. Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, lan-istripuen aurka egindako kanpainari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00197. Galdera, Nafarroan AEA diagnostikatu zaion pertsona-kopuruari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00198. Galdera, Kulturako lanbideen lege-proiektua zertan den jakiteko. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00199. Galdera, Vázquez de Mella-Bayonne ikastetxe publikoan 2025-2026 ikasturterako 3 urteko bi lerroetako bat kentzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00200. Galdera, NITRACHE estrategia eta abeltzaintza-instalazioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00201. Galdera, 2024-2025 ikasturtean C2 maila kreditatzeko probei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00202. Galdera, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeleseko eta euskarako probei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kidea hautatzea. Izendatzea (20. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00012. Iruñeko "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua bere horretan mantentzeko foru-lege proposamena

IZAPIDETZEKO EZ ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta Herriaren legegintza-ekimenari buruzko mar-txoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Iruñeko "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua bere horretan mantentzeko foru-lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamen-tuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren lehenda-karia Manuel Sierra Martín jauna baita.

Ikusita Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek egindako txostena, zeinean ondorioztatzen baita, aipatu foru legearen 5.2. artikulua araber, foru-lege proposamena onartezina dela, aipatu foru legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregela-

menduko 169.1 artikulua ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko ez onartzea Iruñeko "Nafarro-ak gurutzadako bere hildakoei" monumentua bere horretan mantentzeko foru-lege proposamena, zeina Manuel Sierra Martín jauna buru duen batzorde sustatzaileak aurkeztu baitu.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabaki hau –bai eta erabakiaren oinarri den 2025eko maiatzaren 15eko txosten juridikoa ere– batzorde sustatzaile horren ordezkari den Manuel Sierra Martín jaunari jakinaraztea, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jarduketa-plana taxutu eta aldi behin berrikus dezan

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jar-

duketa-plana taxutu eta aldi behin berrikus dezan. Mozioa 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita produktu optikoak eta aho-hortzen osasuneko zerbitzuak sar ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan

MOZIOA ERRETIRATZEA

2025eko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da produktu optikoak eta aho-hortzen osasuneko zerbitzuak sar ditzan Osasunbidea-Nafarroako

Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan. Mozioa 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena

HEZKUNTZA BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2025eko maiatzaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin du Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu

behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena. Mozioa 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegian, Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat garatzeko

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapene eta Ingurumene Batzordeak, 2025eko maiatzaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin du Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegian,

Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat garatzeko. Mozioa 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitzeko eta sortzeko
plan bat abiaraz dezan**

UNIBERTSITATE, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Unibertsitate, Berri-
kuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak,
2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, eze-
tsi egin du Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu-
tako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua
premiatzen baita talentu teknologikoa erakartzeko,

atxikitzeko eta sortzeko plan bat abiaraz dezan.
Mozioa 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00184. Galdera, Elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea bermekin aplikatzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea bermekin aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gober-nuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-seilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legeak, zeina abenduaren 14ko 16/2021 Legearen bidez aldatu baitzen, trazabilitatearen, gardentasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioen arabera jar-dun beharra ezarri zuen. Nafarroako Gobernuak, departamentu eskudunaren edo INTIA sozietate publikoaren bidez, aurreikusita al dauka produkzio-kostuen kontabilitate-ereduak taxutu, baliozkotu eta argitaratzea, legea bermekin aplikatu ahal izan dadin?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00190. Galdera, Kultura arteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua izenekoaren zerbitzu-kontratuari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Kultura arteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua izenekoaren zerbitzu-kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zergatik uste duzu geratu dela hutsik Nafarroako Foru Komunitateko migratzaileentzako kultura arteko bitartekaritza komunitarioko zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratua?

– Nafarroako Gobernuak zer egingen du hori dela-eta?

– Berrito lizitatzen baldin bada, aldatu egingen al da baldintza-agiriko klausularen bat? Hala baldin bada, zeintzuk eta zer zentzutan?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00191. Galdera, Esako urtegia handitzearen ondoriozko luizi-arriskuei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Esako urtegia handitzearen ondoriozko luizi-arriskuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Enegarren aldiz baieztatu baita Esa handitzeak proiektuaren iraunkortasun tekniko eta ekonomikoaren aurkako erronka itzelak dakartzala, eta, batez ere, hurbileko herrietako biztanleen segurtasunerako erronka handiak dituela (Zangozan bizi direnei begira, bereziki), honako galdera hau egin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Esa handitzeak berekin dakartzan luizi-arriskuak inplizituki onartzeari buruz? Izan ere, hori ondorioztatzen da mazela egonkortzen saiatzeko 4. aldaketan 47 milioi euro gehiago inbertitzea proposatzen dela ikusita.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/PES-00192. Galdera, Luzaideko mikrosareari eta itzalaldiari buruzkoa**OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Luzaideko mikrosareari eta itzalaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foruparlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

2024ko uztailaren 2an, instalazio berri bat aurkeztu zen Luzaiden, Nafarroako Gobernuko lehendakaria bertan zela. Instalazio hori «aitzindaria» da Europan, eta Iberdrolaren filialak (i-DE) garatu du. Horri esker, hornidura elektrikoa bermatu ahal izanen litzateke, gertaera meteorologikoen eraginez hornidurarik gabe gelditzen direnean.

Argitaratu zenez, proiektua Iberdrolak eta Nafarroako Gobernuak Pirinioetan bultzatu zuten plan

baten esparruan garatu da, inguruko azpiegitura elektrikoa indartzeko helburuarekin, eta 7 milioi euroko inbertsioa egin da.

Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujok adierazi zuenez "aurrerapen handia da eguraldi txarrak eragindako egoera kritikoen aurrean Luzaide elektrizitatez hornitzeko gai den bana-keta-sarera konektatutako biltegitratze-bateria hori, etorkizunean mendialdeko eta Pirinioetako beste udalerrri batzuetan errepikatze adibide gisa balio diezagukeena, eta gaur, Iberdrola Españaren i-DEri esker, errealitate bat da hemen".

Hala ere, joan den apirilaren 28ko itzalaldiaren ondoren, mikrosare aurreratuak zituzten lekuetan, hala nola Luzaiden, ezin izan zen eragotzi egun horretan hornidura etetea.

– Zer inbertsio eta zer diru-kopuru finantzatu ditu Nafarroako Gobernuak Luzaiden lankidetzako publiko-pribatuko proiektu honen esparruan?

– Zein izan dira Luzaideko instalazioetan izandako akatsaren arrazoiak, Luzaiden hornidura mantentzea lortu ez izana ekarri zutenak? Ba al dago hori justifikatzen duen txostenik?

– Zer neurri hartzea aurreikusten da biltegitratze-mikrosare horretan akats gehiago egotea saihesteko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/PES-00193. Galdera, ehiza- eta arrantza-lizentzien bilakaerari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, ehiza- eta arrantza-lizentzien bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Departamentuak zer azterketa egiten du ehiza- eta arrantza-lizentzien bilakaerari buruz, eta zer arrazoi dago, departamentuaren ustez, 2010etik 2025era bitarteko bilakaera hori izateko?

– Zer neurri hartu dira edo aurreikusten dira joera horri buelta emateko eta Foru Komunitatean arrantza eta ehiza sustatzeko?

– Azterlanik egin al da jakiteko zein izan daitekeen Nafarroan finkatutako ehiztari eta arrantzaleen jarduera horien areagotzea erkidego mugakideetan?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00194. Galdera, jakiteko zer bilakaera izan duten Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Planean aurkeztutako honako ekintza hauek: "Kudeaketa-tresnak hobetzea", "Datuak ustiatzeko tresnak hobetzea" eta "Datuak aztertzeko teknika berriak"

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakiteko zer bilakaera izan duten Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Planean aurkeztutako honako ekintza hauek: "Kudeaketa-tresnak hobetzea", "Datuak ustiatzeko tresnak hobetzea" eta "Datuak aztertzeko teknika berriak".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

"Kudeaketa-tresnak hobetzea", "Datuak ustiatzeko tresnak hobetzea" eta "Datuak aztertzeko teknika berriak" ekintzek zer bilakaera izan dute Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Plana aurkeztu zenetik gaur arte?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00195. Galdera, jakiteko zer bilakaera izan duten Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Planean aurkeztutako honako ekintza hauek: "CPS telekonsulta", "Pazienteen telemonitorizazioa/telezaintza" eta "Osasun Karpeta Pertsonala"

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakiteko zer bilakaera izan duten Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Planean aurkeztutako honako ekintza hauek: "CPS telekonsulta", "Pazienteen telemonitorizazioa/telezaintza" eta "Osasun Karpeta Pertsonala".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

"CPS telekonsulta", "Pazienteen telemonitorizazioa/telezaintza" eta "Osasun Karpeta Pertsonala" ekintzek zer bilakaera izan dute Itxaron-zerrendak 2024an Murrizteko Plana aurkeztu zenetik gaur arte?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00196. Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, lan-istripuen aurka egindako kanpainari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, lan-istripuen aurka egindako kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hona-

ko galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

Maiatzaren 19an (astelehena), Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, lan-istripuen aurkako kanpaina bat aurkeztu du. Bertan parte hartu dute Idoia Pozo CENeko Lan Osasuneko arduradunak eta Iñaki Mendioroz Ekonomia Sozialeko eta Laneko zuzendari nagusiak. Informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina aurtengo proiektuaren ekintza nagusi gisa abiarazi da.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina Enplegu Planeko baliabideekin finantzatu al da? Hala baldin bada, zer kostu izan du?

– Enplegu Planekoak ez diren baliabide ekonomikoekin finantzatu baldin bada, zer kostu izan du Nafarroako Gobernuarentzat eta zer partidarekin finantzatu da?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00197. Galdera, Nafarroan AEA diagnostikatu zaion pertsona-kopuruari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan AEA diagnostikatu zaion pertsona-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat pertsonari diagnostikatu zaie alboko esklerosi amiotrofikoa Nafarroan? Zergatik ez datoz bat Maeztu andreak gaur (maiatzaren 14a) Diario de Navarrari egindako adierazpenetan emandako datua eta Osasun Departamentuak 11-24/PEI-00215 informazio-eskarian emandakoa?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00198. Galdera, Kulturako lanbideen lege-proiektua zertan den jakiteko

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Kulturako lanbideen lege-proiektua zertan den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da kulturako lanbideen lege-proiektua, legebiltzar honek 2024ko urriaren 24an onetsitako mozioan jasotakoa (11-24/MOC-00140 erregistrozenbakia)?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00199. Galdera, Vázquez de Mella-Bayonne ikastetxe publikoan 2025-2026 ikasturterako 3 urteko bi lerroetako bat kentzeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Vázquez de Mella-Bayonne ikastetxe publikoan 2025-2026 ikasturterako 3 urteko bi lerroetako bat kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkun-

tza Departamentuari eskatzen dio honako galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Iruñeko Zabalgunean dagoen Vázquez de Mella-Bayonne ikastetxe publikoko ikastetxeak, familiek eta Gurasoen Elkartek (APYMA) ezinegonan adierazi dute Hezkuntza Departamentuak 3 urteko gelako bi lerroetako bat (Haur Hezkuntzako 1. maila) 2025-2026 ikasturtetik kentzeko hartutako erabaki «drastiko eta ustekabekoaren» aurrean. Adierazi dutenez, aurrez izena eman duten ikasle guztiak ez dituzte onartzen, nahiz eta aldez aurretik bi ikasgelak mantenduko direla ziurtatu den.

– Zergatik kendu da 3 urteko gelako lerro bat?

– Noiz hartu da erabaki hori?

– Zer prozedura jarraitu da erabaki hori hartzeko?

– Zer hartu-eman egon da hezkuntza komunitatearekin erabaki horri dagokionez?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00200. Galdera, NITRACHE estrategia eta abeltzaintza-instalazioei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, NITRACHE estrategia eta abeltzaintza-instalazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Adolfo Araiz Flamarique EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kideak honako galdera hauek aurkeztu ditu Parlamentuko Mahaiaren aurrean tramitatzeko, idatziz erantzuteko:

Ebroko Konfederazio Hidrografikoko lehendakariak erabaki zuen "Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren estrategia arroko uretan nitrato-eduki han-

diaren aurka borrokatzeko" (NITRACHE estrategia) onartzea.

Idatziz erantzuteko, galdera hauek egiten dira:

1. 2023ko maiatzaren 24an, zenbat abeltzaintza-instalazio zeuden "NITRACHE estrategia" horren ondoriozko eremuetan egon zitezkeen azaleretan?

2. Data horretatik aurrera, abeltzaintzako instalazio intentsibo berrien zenbat eskaera jaso dira Departamentuan? Horietako zenbat ukatu dira "NITRACHE strategiaren" azalera horietan egoteagatik?

3. Data horren ondoren, zenbat abeltzaintzako instalazio intentsiboak handitzeko eskaera jaso dira Departamentuan? Horietako zenbat ukatu dira "NITRACHE strategiaren" azalera horietan egoteagatik?

4. Baten bat baimendu bada, bai instalazio berrikoa bai zabaltzekoa, zergatik baimendu da lehendakariaren ebazpena Nafarroan erabat aplikatzeko bada, Ebroko Plan Hidrologikoaren ingurumen-helburuak betetzeko onartu zelako, urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretuaren 8.4 artikulua aplikatuz?

Iruñea, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00201. Galdera, 2024-2025 ikasturtean C2 maila kreditatzeko probei buruzkoa

ENEA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, 2024-2025 ikasturtean C2 maila kreditatzeko probei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako galdera hauei erantzun diezaien.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak 2024-2025 ikasturteetan aurreneko aldiz egin behar ditu C2 mailaren ziurtatze probak.

Nork prestatuko ditu proba horiek?

Nola aukeratu da proba horiek prestatzeko unitatea? Zein prozedura eta irizpideren bidez?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00202. Galdera, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeleseko eta euskarako probei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeleseko eta euskarako probei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako galdera hauei erantzun diezaien.

Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak izan gaien hizkuntza gaitasunen ziurtatze ofiziala egiten dute.

– Zenbat herritar aurkeztu ziren 2021-2022, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan ziurtatze probetara ingeles eta euskara hizkuntzetan?

– Horietatik zenbatek lortu zuten ziurtagiria?

– Nola egiten dira proba horiek? Aurrez aurre? On line?

– Datu horiek zentroz zentro, ikasturtez ikasturte eta hizkuntzaz hizkuntza ematea eskatzen dut.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kidea hautatzea

IZENDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, honako hau erabaki zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kide gisa izendatzea:

Kevin Lucero Domingues jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias